


# LANTIK, S.A.M.P. - BIZKAIA FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA:

## BIZKAI UP: Bizkaiko Foru Aldundiaren zuzeneko informazio- kanala



Valentin Garcia Souto  
valentin.garcia@bizkaia.eus  
672434965  
<https://www.lantik.bizkaia.eus/>

---

 **Jarduera:** LANTIK SA Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetzapeko sozietatea da, eta foru-sektore publikoari zerbitzuak ematen dizkio informazio- eta komunikazio-teknologiaren arloan, bai Foru Aldundiari, bai erakunde autonomoei eta baita Bizkaiko udalei ere.

 **Sektorea:** Informazioaren teknologiek eta informatikarekin lotutako beste zerbitzu batzuk

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 239

 **Lokalizazioa:** Sabino Arana Etorbidea, 44, 48012 , Bilbao - Bilbo, Bizkaia

## Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?

Sektore publikoko komunikazio-kanaletan aplikatutako berrikuntza teknologikoaren kasu erreal bat delako: Bizkaiko herritarren esku jartzen ditu zerbitzu publiko berriak, eta beste batzuk hobetu egiten ditu. Gainera, inguruneko faktoreei erantzuten die, eta teknologia berriak goiz bereganatzen ditu. BIZKAI UP komunikazio-kanal berria da, zerbitzua eta erakundeak gizartera hurbiltzen dituen modu arin eta berritzailean.

## KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Lantik SA pertsona bakarrek sozietatea da, Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza eskusiboa duena; 1981ean sortu zen foru-erakundeari, haren mendeko erakunde eta organismoak eta Bizkaiko udalei informazio-sistemak hornitzeko. Halaber, horiek ustiatzeaz eta edozein motako zerbitzu atxikiak emateaz arduratzen da.

2020ko martxoan alarma-egoera eta gizarte osoarentzako konfinamendu orokorra ezarri zirenean, foru-sareko egoitzetan bizi diren pertsonak ere horren eragina izan zuten. Egoera bereziki mingarria izan zen eremu horretan, birusak adin nagusiko pertsonengan duen birulentziagatik. Segmentu horren heriotza-tasa handia eta beldurra oztupoak ziren familientzat, eta ezin zuten lortu euren hurbileko pertsonak eskualdeko egoitzetan bizi zuten egoeraren inguruko informazio xehaturik.

Horrez gain, pandemiak beste sektore ekonomiko batzuk ere eragin zituen, eta foru-politika eta -zerbitzu publikoak iturri fidagarri eta eraginkor baten bidez jakinarazi behar ziren. BFAK ulertu zuen hurbileko tresna bat gaitu behar zuela, sakelakoa, konfiantza-harreman hori sortzeko eta informazioa zuzenean emateko.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak, BIZKAIA UP aplikazioaren bidez, herritarren esku jartzen du zerbitzu publikoen eskaintza berri bat, eta aurreko batzuk hobetu egiten ditu, osasun-krisiaren testuingurura egokitzuz eta erantzun azkarra emanez; horretarako, hainbat funtzionalitate integratu ditu tresna teknologiko berean.

Komunikazio-kanal berri baten aurrean gaude, eta honako hauek eskaintzen dizkie erabiltzaileei: berrien kanal bat interes-eremutan banatuta, errealtate areagotuko funtzionalitateak segurtasun-distantzia neurtzeko (elementu aitzindaria), ahozko "Chatbox" berri bat euskaraz eta gaztelaniaz, BFAren harremanetarako eta laguntzarako telefonoak, hondartzei buruzko informazio xehatua denbora errealean, harpidetzeko eta jakinarazpenak jasotzeko aukera, agenda kulturala, aurrez aurreko arretarako aurretiazko hitzorduaren kudeaketa, Euskadiko administrazio publikoen ordainketa-plataforma eta herritarren arretarako bideo-deiak, besteak beste.

Lorpen nagusia izan da eskuragarri dagoen aplikazio bat lortzea, plataforma orokorretatik (Android eta iOS, adibidez) erabili ahal izateko modu azkar, arin eta sinplean. Gainera, gai izan da pandemiaren lehen hilabetei aurre egiteko berehalako erronkari erantzuteko. Halaber, ekimenak aintzatespena jaso du bai IBM Cloud Forum bezalako enpresa-foroetan eta hedabideetan, bai telebistan (TVE1 eta Tele5), irratan eta prentsan.

### Aurrekariak

Bizkaiko Foru Aldundiak funtzionalitate bertikaleko hainbat aplikazio ditu, eta horiek antolatu eta aberastu egin nahi ditu kanal berri baten inguruan, zerbitzu publiko berriak eman ahal izateko. Pandemia globalaren eta herritarren konfinamendu orokorraren testuinguruak eragina izan du foru-sareko zerbitzu publikoen prestazioan, eta premiazko konponbide bat behar da egoerari erantzuteko.

### Erronka

Pandemiak mahaiaren gainean jarri du herritarrekiko zuzeneko komunikazio-kanal bat berehala edukitzeko beharra, egiazko informazioa modu arin eta errazean eskaintzeko, teknologia berrien aukerak baliatuko dituzten funtzionalitate eta zerbitzu berriekin; horrekin batera, hori errekor denboran garatzeko beharra dago, alarma-egoeratik eta COVID-19aren eraginetik eratorritako eragozpenak arintzeko, bereziki zainketa soziosanitarioen eta sektore ekonomiko kalteberen eremuan.

### Ekintzak

- 2020ko martxoaren 13an alarma-egoera eta konfinamendu orokorra ezarri ziren. Martxoaren 22an, BFAK LANTIKI agindu zion beharrezko lanak egiteko komunikazio tresna teknologiko bat sortzeko.
- LANTIKI mugikorretzako aplikazio bat proposatu zuen (Android eta iOS), aplikazioa zuten erabiltzaileek gai interesgarriei buruzko informazioa jasotzeko, hala nola gizarte ekintza, ekonomia, eta abarri buruzko informazioa. Horrez gain, aurrez aurreko arreta jasotzeko ezintasuna ere arindu nahi zen.
- Aurrez aurreko arretari berriro ekin ahal izan zitzaionetik, beste behar bat hauteman zen: ilarak eta pilaketak ekiditearena. Aplikazioan ilaren kudeaketa automatizaturako elementu bat txertatu zen, segurtasun-distantzia bermatzeko:
  - o Aplikazioak errealtate areagotua erabiltzen du, zeinak aukera ematen duen gailua erdigunean jarrita zirkunferentziak marrazteko; gainera, semaforo kode baten bidez segurtasun-distantziaren alertak igortzen ditu. BIZKAI UP elementu hori abiaraztea lortu zuen lehen aplikazioa izan zen, eta oso erabilgarria da hondartzetan, supermerkatuan, garraio publikoan, eta abar.

- Aplikazioa apirilaren 5ean argitaratu zen.
- 2020ko udan, funtzionalitate berri bat gehitu zen eskualdeko 18 hondartzen egoera zuzenean berrikusteko. Horrela, herritarrei aukera eman zitzaion nahi zuten hondartzara joateko.
- Garapen-lanak extreme agile esparruaren pean egin ziren: BFAren teknologia batu zen, sektoreko enpresa handien ezagutza baliatuta aplikazioaren garapen orokorrerako, eta, gainera, aukera ematen zuen gaitasun gehigarriak edukitzeko.

## Lortutako emaitzak

- BizkaiUp aplikazioa eskuragarri egotea Android eta iOS plataformetako store dendetan deskargatzeko, nahi den epean eta aurretik finkatutako irismenarekin.
- Appleren merkatu iberiarrean aste batean gehien deskargatu den hirugarren albiste aplikazioa da, Twitterren atzetik eta Redditen aurretik.
- Bizkaiko herritarrek aplikazioa modu interesgarrian lortu, erabili eta baloratu izana.
- TVE1 kateko albistegian eta Telecinco katean agertu izana, baita hainbat irratitako sei programatan ere; gainera, arrakasta-kasua izan da IBM cloud kongresuko bilkuran.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak, Software-a.

### Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

**Valentin Garcia Souto (Berrikuntza eta Kanpo Proiektioko burua)**

“Erabat ezohikoa zen larrialdi batek eragindako premiak bultzatu zuen berrikuntza-proiektua, modu azkartuan: fase guztiak igaro behar izan genituen denbora-epe laburrean, eta guztia extreme agile antolakuntza-esparruaren pean egin genuen”.

**Javier Vicente (Berrikuntza eta Kanpo Proiektzioa arloko teknikaria)**

“Gakoetako bat izan da balioa ateratzea erakunde-mailan eta maila pertsonalean; parte hartu genuen erakunde eta pertsona guztiok asko ikasi genuen eta esperientzia onak izan genituen”.

### Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★★★★